


TXOSTENA

MEMORIA

MEMOIRE

2017



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez

**100**

[www.eusko-ikaskuntza.eus](http://www.eusko-ikaskuntza.eus)

---

**EUSKO IKASKUNTZA**

Memoria 2017 / Eusko Ikaskuntza. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2018. – 112 or. ; 24 cm.

ISSN: 0213-8662

1. Eusko Ikaskuntza I. Tit.

06 Eusko Ikaskuntza

---

Erakunde hauen babesarekin: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeritza.



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez

**100**

**EUSKO IKASKUNTZA – SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS –  
SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES**

Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia

[www.eusko-ikaskuntza.eus](http://www.eusko-ikaskuntza.eus) – [ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus)

Lege Gordailua: SS – 0512/04

Fotokonposaketa: GUK S.L.

Inprimaketa: Gráficas Irala

## Aurkibidea

## Índice

## Index

05	41	77
Aukezpena	Presentación	Présentation
06	42	78
Sarrera	Introducción	Introduction
08	44	80
Mendeurrena eta XVIII. Kongresua	Centenario y XVIII Congreso	Le Centenaire et le XVIIIe Congrès
10	46	82
Eusko Ikaskuntzaren jarduera zientifika	La actividad científica de Eusko Ikaskuntza	L'activité scientifique d'Eusko Ikaskuntza
24	60	96
Beste proiektu eta ekimen batzuk	Otros proyectos e iniciativas	Autres projets et initiatives
30	66	102
Sariak	Premios	Prix
32	68	104
Zabalkundea	Difusión	Diffusion
34	70	106
Erakundea	La Institución	L'Institution
38	74	110
Datu ekonomikoak	Datos económicos	Donnes économiques

A close-up photograph of a dark brown, multi-stranded rope tied in a knot against a light background. The rope has a prominent texture and a complex knot structure.

| 2017 TXOSTENA



1918an, sortu zenean, Eusko Ikaskuntzak helburu bikoitza ezarri zion bere buruari: euskal kulturaren nortasuna sendotzea eta ikuspegi prospektiboz heltzea une historiko bakoitzean Euskal Herriak dituen erronka nagusiei. Orain, 100 urte betetzean gaudela, atsegin handiz esan dezakegu gure Elkarteak inoiz baino kementsuago jarraitzen duela bi jardun horietan buru-belarri murgildurik, eraldaketa bizkorrez eta aukera garrantzitsuz betetako garaiotan.

Hala, gure bazkideek era guztietako ekintzak burutu eta burutzen dituzte orotariko ezagutza-esparruetan, ikuspegi metodologiko ugari erabiliz, aipatutako ahaleginean gurekin bat egiten duten erakunde, instituzio eta pertsonekin batera. Ekintza horiek guztiak urteko TXOSTEN batean biltzen ditugu, gure Elkartearen bizitasuna zertan den neurtzeko nahiak eraginda.

Ondorengo orriean, 2017ko jarduera nagusiak zerrendatuko ditugu. Bereziki nabarmendu nahi dugu **Geroa Elkar-Ekin** proiektuaren inguruko jarduna, XXI. mende hasierako euskal gizartearren errealitytea aztertu eta proposamen partekatuak prestatzeko bidean barneratu dena. **Geroa Elkar-Ekin** proiektuak Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuan, 2018an, aurkeztuko du lehen balantza.

Sortu zeneko Mendeurrenaren bezperan, pozarren esan dezakegu Eusko Ikaskuntzak ilusioz beterik eta ekinaren ekinez jarraitzen duela Euskal Herriaren kohesiora eta elkartasunera zuzendutako borondateak uztartzeko zereginean, baita aurrerabide sozial, ekonomiko eta kulturalerako proposamen eraginkorrik egiteko lanean ere.

Gizarte zibilari dei egiten diogu gure etorkizuna eraikitzeo.

**Iñaki Dorronsoro  
Euskal Ikaskuntzako Lehendakaria**




## Eusko Ikaskuntza

Eusko Ikaskuntza 1918an jaio zen, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako aldundien ekimenez. Mundu osoko euskal herritar eta euskaltzale guztiei dago irekita eta gizarte-oinarri zabal-zabala du. Izan ere, euskal eremu osoan ofizialki aitortuta dagoen eta Administrazio guztiekin harreman zuzena duen erakunde zientifiko-kultural bakarra da, Euskaltzaindiarekin batera. Orobak, sinesmen eta ideologia guztiak pertsonak erakartzeko gaitasuna frogatu du erakundeak, Euskal Herriarekiko maitasunaren eta kultur balio jakin batzuei eutsi behar zaielako ustearen inguruan bilduta.

## Zer egiten dugun

Eusko Ikaskuntzak ezagutza aztertzea eta sustatzea du helburu. Duela mende batetik hona, Euskal Herrian sortutako kezka eta etorkizunerako erronka nagusiei irtenbide berritzaireak ematen saiatu da uneoro. Ildo horretan, gizartea, kultura, hizkuntza, egoera sozioekonomikoa eta lurralte-errerealitatea hartzen ditu beti kontuan. Alderdi horiei guztiei heltzeko ikuspegia, gainera, zientifikoa, lankidetzakoa, diziplina anitzekoa, plurala eta independentea izan ohi da beti.



## Helburuak

- Eusko Ikaskuntzak euskal gizartea kohesionatzen eta egituratzentz lagundu nahi du. Horretarako, Euskal Herriaren ikuspegia globala eta integratzailea eskaintzen du, lurraldetako bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta.
- Euskal Herria berritzentz eta eraldatzen laguntzen du, arazo eta erronkak aztertuz eta erantzunak eskainiz.
- Pentsaera irekia, plurala eta independenteara garatzen eta gizarteratzen ahalegintzen da.
- Zientzia eta kultura zabaltzen ditu.
- Horrela, gizarte-ehunaren artikulazioa sustatzen du eta zubiak eta sinergiak sortzen ditu erakundeetan, lurraldeean, pertsonen eta ikuspegiaren artean.

## Eremu tematikoak (bost proiektu)

2013an, Eusko Ikaskuntzak bere egiteko historikoa birfinkatu zuen. Harrezkero, enbor sendo baten gainean zabaltzen den zuhaitzaren irudiak islatzen du bere lana. **Etorkizuna irudikatzeko** asmoa lau adar handiren oinarri uztartzalea da. Hona hemen lau adarrak:

- Errealitate sozio-kulturala
- Eredu sozio-ekonomikoa
- Euskararen etorkizuna
- Egituraketa sozio-politikoa

Lau ardatz estrategiko horietatik abiatuta, instituzioak bost ikerketa-proiektu handi zehaztu ditu. Hain zuzen, eremu hauetan guztiak aritu da lanean azken urteotan:

- Nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea
- Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen, e5
- Gure jendea: gizartea eta kultura
- Gobernantza demokratikoa
- Garapen sozio-ekonomikoa: euskal gizarte- eta enpresa-ereduak

Hizpide dugun prozesuaren mugarrietako bat izango da 2018ko udazkenean egiteko den Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua, Eusko Ikaskuntzaren Mendeurrenarekin bat etorriko dena.



# MENDEURRENA ETA XVIII. KONGRESUA

---



2018an beteko da Eusko Ikaskuntzaren sorreraren mendeurrena, baita penintsulan lau hamarkadatan debekatuta egon ondoren berriz jardunean hasi zeneko berrogeigarren urteurrena ere. Efemeride bikoitza hori ospatzeko hainbat ekitaldi egingo dira, eta Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren bidez emango zaie amaiera.

Kongresuan, **Geroa Elkar-Ekin / El futuro que nos (re)une / Notre futur ensemble** deritzen lan-prozesuaren ondorio nagusiak aurkeztuko dira. Azken helburua: XXI. mendeko euskal gizartea aurrean dituen kezka eta erronka nagusietarako erantzunak aurkeztetea, eta eztabaidea-gaietan sakontzen jarraitzeko lan-agenda zehaztea, ahalik eta eragile sozial, politiko eta instituzional gehienenen babesarekin.

Asmo handiko projektua da, zalantzarik gabe, eta ilusioz eta gogoz helduko diogu. Helburu erkide baten inguruan bilduta: guztiion artean Euskal Herriaren gizarte- eta lurralte-kohesioa indartzen lagunduko duten etorkizuneko agertoki eta proposamenak finkatzea.

**Xabier Alkorta**

Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren  
eta Mendeurrenaren Lehendakaria

## Mendeurrenerako ideiak eta proposamenak

Xabier Alkorta buru duen Batzorde Antolatzaleak dei egin zien bazkide guztiei, Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenra dela eta 2018ko udazkenerako aurreikusitako ospakizunen egitaraua aberasteko ideiak eta proposamenak egin zitzaten. Ekarpenean ugari jaso ziren eta, haiei esker, mendeurreneneko programa osatu ahal izan genuen.

Efemeride garrantzitsu horretako ospakizunez gain, Eusko Ikaskuntzak XVIII. Kongresua ere egingo du. Guztira bost saio izango dira, aurtengo urrian hasita eta euskal hiriburuaren sakabanatuta. Ondoren, amaierako ekitaldia 23an izango da, Oñatin. Hurrengo egunean, azaroaren 24an, Mendeurreneneko ospakizun nagusiak egingo dira, Oñatin bertan. Hasteko, ekitaldi instituzionala egingo da. Agintariekin, Eusko Ikaskuntzako kideek eta euskal gizarte zibileko ordezkariet hartuko dute parte bertan. Egunaren bukaeran, partaidetza irekiko hainbat jarduerak jai-giroa emango diote hain egun seinalatuartu.

Horrez gain, liburu hau argitaratuko da, Eusko Ikaskuntzak azken mendean Euskal Herriaren garapen kulturalari, zientifikoari eta sozialari egindako ekarpenari buruz: "Euskaldunon Mendaia (1918-2018). Eusko Ikaskuntza 100 urte / El Siglo Vasco (1918-2018). 100 años de Eusko Ikaskuntza". Euskal gizartea azken mendean izan duen bilakaera eta etorkizuneko erronkak eta ikuspegiak jasoko ditu argitalpen horrek, Eusko Ikaskuntzaren ekarpenenkin aberastuta.

Mendeurrenenko ospakizunak burutzeko, erakundearren ikuspegi zabala ikusaraziko duen musika-antzerkia prestatu da. Erakundea 1918an jaio zenean egin zen bezala, antzerki-lan bat taularatuko da Euskal Herriko hainbat antzokitan. "Hamaika Amaren Seme (Alaba)" izenburuko antzerki-lan horrek Eusko Ikaskuntzaren ibilbide historikoa erakutsiko du, erakundeak ehun urteotan bizi izan dituen gorabeherak ezagutaraziz eta, aldi berean, euskal gizartean izandako gertaerekin paralelismoak eginez.



Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuko Geroa Elkar-Ekin programa bost eremu tematikoren inguruan egituratu da; Eusko Ikaskuntzak 2015etik hona landu dituen bost proiektu nagusien inguruan, alegia. Sail bakoitzak euskal hiriburu batean egingo ditu saioak, azaroaren 23an itxiera-ekitaldia Oñatin ospatuko dugularik. Bertan, Kongresuaren ondorio nagusiak aurkeztu eta eztabaidatuko dira:

- Irekiera: Nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea.  
[Baionan, 2018ko urriaren 5ean](#)
- Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen, e5. [Gasteizen, 2018ko urriaren 19an](#)
- Gure jendea: gizartea eta kultura. [Iruñean, 2018ko urriaren 26an](#)
- Garapen sozio-ekonomikoa: euskal gizarte- eta enpresereduak. [Bilbon, 2018ko azaroaren 9an](#)
- Gobernantza demokratikoa. [Donostian, 2018ko azaroaren 16an](#)
- Itxiera-ekitaldia: Geroa Elkar-Ekin. [Oñatin, 2018ko azaroaren 23an](#)

# EUSKO IKASKUNTZAREN JARDUERA ZIENTIFIKOA

---

## Bost ikerkuntza-proiektu

Eusko Ikaskuntzak “XXI. mendeko Euskal Herriko gizarte iraunkorren” alde lan egiten du. Helburu horrekin, bost ikerkuntza-proiektu nagusitan egituratzen du bere jarduera zientifikoa, bere lanaren oinarri diren bi ardatz nagusiei erantzun globalak emateko: gizarteari eta lurraldeari.

Eusko Ikaskuntzaren ikuspegi berezi horrek, beraz, bi ardatz horiek zeharkatzen dituzten aldagai kritikoak hartu behar ditu barne: aldagai sozio-ekonomikoa, kulturala eta sozio-politikoa, hain zuzen. Horien arteko lotura bilatzea da erakundearren eginkizuna.

Euskal Herriaren eta haren kulturaren kezkak, interesak eta erronka sozialak abiapuntu hartuta, gizarte zibila —gure adimen kolektibo— aktibatzen du, iraultza teknologiko globalaren testuinguruan etorkizun posible eta desiragarriak bistaratzeko.

Hainbat gizarte-eragileren ezagutza eta partaidetza zabala uztarturik, irtenbideak aztertu, proposamen ausartak landu eta interes kolektiboko ekimenak sustatzen ditu, ikuspegi eta planteamendu ezberdinatik, egungo euskal gizartearen etorkizuneko jarduketa iraunkorren gidalerroak eta zimendua finkatzeko.

## Metodología

Eusko Ikaskuntzak egungo gizartean dauden espazio aktiboak elkarrekin lotu nahi ditu, adimen kolektiboa bultzatzeko eta errealtitatean eragiteko helburuz. Eta zeregin horretarako gakoa hiru ardatz hauek oinarri dituen metodología da:

- **Elkarlaneko metodología:** metodología progresiboa erabiltzea, prozesu ireki eta integratzaileen bidez, ekarpenak batuz, konfiantza-sareak sortzeko.

- **Ikuspegi plurala:** diziplinartekotasunean oinarritutako dinamika erabiltzea, hurbilpen teoriko eta ideologiko ezberdinak, adituengen ezagutza eta jarduera, lurralde bakoitzaren berezitasuna eta belaunaldien arteko begirada aintzat hartuta.

- **Adituengen eta gizarte zibilaren arteko lankidetza estua eta iraunkorra,** unibertsitate, erakunde, alderdi politiko, gizarte-eragile eta herritarren arteko lankidetzako lana sustatuz.

Prozesuaren esparru metodologikoa *Liburu Berdean* eta *Liburu Zurian* jasotzen da. Metodología honek aukera ematen du hausnartzeko eta eztabaidatzeko prozesu bat abian jartzeko. Prozesuan erakundeak eta partikularrak inplikatuz gero, horiek lege-garapenak susta ditzakete.

2016-2017 biurtekoan, *Liburu Berdearen* fase kontzeptuala eta diagnostikoa garatu zen. Zehazki, 2017an, lan-arlo bakoitzaren egoeraren lehen irakurketa egin zen, planteatutako ardatz guztien mapa kontzeptuala jasota eta euskal-nafar lurraldeen kohesioari eta elkartasunari buruzko argazki orokorra eskainita.

Geroago, diagnostiko hori doitu egingo da, eta, horrela, *Liburu Zuria* sortuko da. Bertan, hainbat agertoki eta arkitektura jasoko dira, ondorengo agenda sozialen eta instituzionalen oinariak finkatzeko.

Lan horrek guziak oinarrizko bi printzipio hauek jarraitu ditu: lehenik, duintasun demokratikoa eta berdintasuna, jakintza eskuratzeko orduan, gogoeta-prozesuan parte hartzeko; bigarrenik, zeharkakotasuna eta genero-ikuspegia, ezberdintasun-egoerak antzeman eta gainditzeko eta emakumeak eta lan-ezegonkortasuna duten pertsonak erakartzeko.

## Parte hartzeko dinamika

2017an zehar elkartze-foroak, jardunaldiak eta gogoeta-mintegiak gauzatu ziren, bost gogoeta-gai nagusiei buruzko alderdi tematikoak jorratzeko. Guztira 30 lan-saio burutu ziren, 600 partehartzaile inguru hurbildu zirelarik.

Elkartzeko eta batzeko espiritua nagusi dela, adituen eta herritarren partaidetza uztartzen duen elkarlaneko prozesu bati ekin diogu, diagnostiko partekatuak lortzeko eta gure herrialdeak behar duen gogoeta estrategikoaren gakoak zehazteko, gero eta azkarrago aldatzen ari den mundu batean.

Prozesua, arian-arian, masa kritikoaren ekarpenak erakartzen saiatzen da, gogoeta aberasteko. Zorrotzsun zientifikoa erabilita, erakundeak gizartea ahaldundu eta etorkizunaren eraikuntzaren parte bihurtzen du.

Eusko Ikaskuntzaren ikerkuntza-proiektuek gizartearen kezka, interes eta arazoei erantzuna emateko helburua dute, eta, horretarako, Euskal Herria eta euskal kultura ikertzen dute.

Gure adimen kolektiboa den gizarte zibilaren ikuspegia egituratuz, etorkizun posible eta desiragarriak bistaratzen dira, mundu teknologiko global batean. Ikerkuntza, jakintza eta irudimena uztarturik, irtenbideak aztertu, proposamen ausartak landu eta interes kolektiboko ekimenak sustatzen dira.



Jarraian, Eusko Ikaskuntza azken urteotan lantzen  
ari den bost ikerkuntza-proiektuak zehazten dira:



# 1

## Nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea



### Testuingurua

«Etorkizunaren aurrean, lau jokabide-mota ditugu aukeran: ostruka pasiboa, hau da, aldaketak jasaten dituena; suhiltzaile erreaktiboa, hau da, sutea piztutakoan itzaltzeaz arduratzen dena; ziurtatzaile preaktiboa, zeinak bere burua prestatzen baitu gerta daitezkeen aldaketei aurre egiteko, badakielako prestakuntza prebentzioa baino garestiagoa izan ohi dela; konspiratzaile proaktiboa, hots, berak nahi dituen aldaketak eragiten saiatzen dena».

#### Zuzendari Zientifikoak

Jean-Michel Larrasquet

#### Projektuaren Arduraduna

Koro Muro Arriet

#### Batzorde Eragilea

Ane Bustinduy

Javi Castro

Iñaki Dorronsoro

Javier Echeverría

Lola Elejalde

René Harlouchet

Xabier Landabidea

Iban Lizarralde

Adriana Martínez

Xabier Oleaga

Maitena Urmeneta

Ibon Zugasti

#### 2017ko jardueren egutegia

Barkoxe

Otsailak 4

#### Badute etorkizunik landa-eremuek?

Donostia / Baiona

Urriak 9 / Urriak 13

#### Ezagutzaren gizartea: hezkuntzaren etorkizunari buruzko foroa

## Aurkezpena

*Nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea* euskal gizarteak mende honen erdialdean izango duen etorkizunari buruz elkarrekin hausnartzeko proiektua da. Herritar xeheak eta adituak bilduko dituen foroetan oinarritzen da proiektuaren metodologia. Elkarrizketaren ondorioz, gaurko eta biharko ekintza-proposamenak eta posizionamenduak sortuko dira, etorkizun kolektiboaren eraikuntzan parte hartzeko ikuspegiarekin.

## Helburua

Proiektuak helburu bikoitza du:

- Alde batetik, gugan eragiten duten gaiekiko euskal gizarteak adierazten duen geldotasuna eta utzikeria gainditzea eta, horretarako, pertsonak pausaldian, hausnarketan, elkarrizketan eta elkarbizitzan trebatzea.
- Beste alde batetik, etorkizunerako nahi ditugun balizko agertokien ikuspegia irudikatzea, gizarteak berak asmatuta eta azalduta, kontakizun impresionistik abiatuz. Azken asmoa: emaitza berritzaleak eta probetxugarriak lortzea.

Igantzi

Apirilak 5

**Mugaz gaindiko  
enpresagintza**

Antzin

Azaroak 10

**Etorkizuneko  
herri txikiak**

Iruñea

Apirilak 28 / Maiatzak 19

**Euskarari buruzko  
foro plurala**

Zumarraga

Azaroak 22

**Bizitza-luzeraren  
iraultza**

Bergara

Uztailak 4

**Ezagutzaren gizartea**

Hernani

Abenduak 12 / Abenduak 18

**Memoria historikoari  
buruzko belaunaldi arteko  
topaketa**

## 2

# Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)



### Zuzendari Zientifikoak

J. Inazio Marko Juanikorena

### Proiektuaren Arduraduna

Josune Etxaniz

### Ikertzailea

Beñat Garaio

### Batzorde Eragilea

Xan Aire

Kike Amonarriz

Xabier Erize

Jone Goirigolzarri

Mikel Irizar

Ibon Manterola

Iñaki Martinez de Luna

Olatz Olaso

Ana Urkiza

### Testuingurua

Euskalgintza krisiak iota dago. Hizkuntza suspertzeko prozesua ere itxaronaldian dagoela dirudi, ez aurrera ez atzera. Ezinbestekoa da diskurtso berri bat eta ordezko ikuspegia bat sortzea, oraingo zikloa bukatu eta beste bat abian jartzeko. Hain zuzen, norabide horretan orotariko ekimen interesarriak ari dira sortzen elkartemugimenduen, gizarte-erakundeen, eragile politikoen eta instituzionalen eskutik.

### Aurkezpena

Euskalgintzak une honetan dituen erronkei erantzuteko irtenbide irudimentsuak behar ditugu. Ildo horretan, edozein bide aukeratzen dugula ere, euskararen alde orain arte egindako lan eskergari jarraipena eman behar diogu, ekintzaileta suspertz eta euskaldunen komunitatea trinkotuz. Bietiere printzipio bera oinarri hartuta: hizkuntza gutxituak suspertzeko, diziplina arteko lankidetza ezinbestekoa da.

## Helburua

Hiru jardunbide jarriko dira abian, datorren hamarkadetarako euskalgintzaren errealitate berri bat eratzen laguntzeko:

- Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen indarguneen azterketan oinarrituz, gizarte-eraldaketarako praxia bultzatzeko aukera emango duen interpretazio-esparru berria sortuko dugu.

- Komunitatearen kapitaletan oinarrituz, etorkizunerako *nahi ditugun agertokien konstelazioa irudikatuko dugu.*

- Ekarpene teoriko eta praktiko ugariak bilduz, *nahi ditugun agertokien konstelazio horretara iristeko ibilbide-orria diseinatuko dugu.*

## 2017ko jardueren egutegia

Gasteiz

Martxoak 31

**Gazteak/euskara binomio dinamikoa: euskaren erabilera sustatzeko gakoak**

Iruñea

Apirilak 28 / Maiatzak 19

**Euskarari buruzko foro plurala**

Gasteiz

Ekainak 2

**e5 proiektuaren lehen mintegia**

Bilbo

Urriak 7 / Urriak 21

**Eta Bilboko gazteak euskaraz, zergatik ez?**

### Master amaierako bi laguntza ematea:

Gazteek sare sozialetan lantzen dituzten gaiak eta euskaraz aritzen direnean aurkitzen dituzten arazoak aztertuko ditu Joseba Fernández de Landak.

Gazteak euskaraz aritzera bultzatzen dituzten arrazoietaan sakonduko du Libe Alvarez Iruguengagatetek.

Azaroa

**e5 proiektuaren Delphia, komunitatearen kapitalen mapa osatzeko**

# 3

## Gure jendea: gizartea eta kultura



### Zuzendari Zientifikoa

Julen Zabalo

### Projektuaren Arduraduna

Beatriz Akizu Aizpiri

### Batzorde Eragilea

Lorea Agirre

Haizea Barcenilla

Koldo Díaz Bizkarguenaga

Idurre Eskisabel

Ibai Iztueta

Xabier Landabidea

Aintzane Usabiaga

### Testuingurua

Azken urteotan aldaketa sozial, ekonomiko eta politiko sakonak ari dira gertatzen munduan eta nazio-eremuan. Oraindik argitzeke dago zein den euskal gizartearren identitatearen eta kulturaren errealitatea mundu globalizatu eta digitalean.

Nazio-eremuko aditu batzuek lantaldea osatu dute kontzeptualizazio berri hori lantzeko. Ideologien gainetik, dimentsio akademiko eta teorikoan oinarritzen dira *Dibertsitatea, kultura eta identitateak* gaia jorratzeko.

## Aurkezpena

Euskal Herriaren eraldaketa-prozesuan eragiten duten funtsezko elementuak aztertuko dira: balioak, kultura-arteekotasuna eta identitatea, besteak beste. Horretarako kontuan hartuko dira euskal komunikazio-sistema eta IKTen eragina.

Horrekin batera, funtsezkotzat jotzen da kulturaren sustapena eta zabalkundea, balio sozioekonomikoa eta integratzailea delakoan.

## Helburua

Globalizazioak eta egungo gizarte konplexuak elkarren arteko konfiantza jaitsiarazi du eta herri proiektuak eraikitzeko herritartasunaz eta balio partekatuaz hitz egin beharra dago. Aniztasunaren aniztasuna, bizikidetza eta kohesioa indartzeko bideak izango ditugu hausnarketa gai. Hezkuntzak, komunikabideek, ingurune digitalak eta kulturak zer paper jokatzen duten komunitatearen kohesioan, izaera kritikoaren sustapenean, bilgune espazioen eraikuntzan aztertuko ditugu.

### 2017ko jardueren egutegia

Bilbo	Eibar
Ekainak 22	Uztailaren 10etik 11ra
<b>Testuinguru digitalari buruzko ikerketak Euskal Herrian</b>	<b>Arrakala. Sorkuntza garaikidearen sorkuntza, zabalkundea eta helburuak</b>
Eibar	Iruñea
Uztailak 11	Urriak 26
<b>Hedabideak eta herria: euskal telebista publikoa irudikatzen</b>	<b>Kultura-mintegia: nola kokatu kultura gure gizartearren erdigunean?</b>

## 4

# Gobernantza demokratikoa



## Zuzendari Zientifikoa

Mario Zubiaga Garate

## Proiektuaren Arduraduna

Beatriz Akizu Izpiri

## Batzorde Eragilea

Koldo Díaz Bizkarguenaga

Andoni Eizagirre

Imanol Esnaola

Gorka Espiau

Jule Goikoetxea

Iñaki Lasagabaster

Mikel Legarda

Zelai Nikolas

Ana Oregi

Begoña Pérez de Eulate

## Testuingurua

Lurralde arteko gobernantza-eredu berri batean oinarritutako egitura soziopolitiko berri batek Europaren kokapen hobea (kokapen geoestrategikoa esparru atlantikoan) lortzeko aukera emango die Euskal Herriko lurralde guztiei.

## Aurkezpena

Prozesuan zehar egin diren galdera batzuk:

- Egituraketa soziopolitikoak zentzua ematen dio lurraldeari: zein dira eraldaketa soziopolitikorako elementuak?
- Zein dira edo izan daitezke lurralde arteko gizarte-proiektu berezitu, egonkor eta bideragarri bat egiteko aukera emango duten elementu komunak?
- Zer kohesio-maila daude (sektorialak, administratiboak, arauemaileak, sozialak...)? Zer potentzialtasun? Zer ahultasun? Zer aukera?
- Nola ulertzen dira gizartean *kapital soziala*, *lurralde-kapitala* edo *lurralde-adimena* kontzeptuak, gobernantza-ereduei dagokienez? Nola mugitzen dituzte lurraldeek euren ezagutzak eta nola egokitzen dira baldintza berrietara?

- Nola eraiki genezake kapital soziala lurrealde-baliabide gisa?
- Nolako eragina du Internetek lurrealdetasuna antzemateko eta ulertzeko eran?

## Helburua

2017ko prozesuaren emaitzak *Euskal Herriko lurrealdeen Liburu Berdean* hezurmamituko dira, bi helburu nagusi erdiesteko asmoarekin:

Lurrealdeari buruzko **mapa kontzeptuala** proposatzea, dimentsio anitzeko errealitatea aintzat hartuta.

Euskal lurrealdeen kohesioaren eta elkartasunaren gaur egungo egoeraren **partaidetzako diagnostikoa** egitea.

Horrela, *Liburu Berdearen* edukiak osatuz joango dira, eta proposamen-agenda partekatua zehazten hasiko gara, Euskal Herriko lurrealdeen kohesioa eta elkartasuna indartzeko. Hau da, *Liburu Berdean* jasotako diagnostikoa eraldatuz joango da arian-arian *Euskal Herriko lurrealdeen Liburu Zuriaren* lehen edizioan, eta bertan bilduko dira etorkizuneko agenda sozial eta instituzionalen oinarriak finkatzen lagunduko diguten agertokiak eta arkitekturak.

## 2017ko jardueren egutegia

Donostia	Donostia	Irun	Donostia
Urtarrilak 14	Urtarrilak 28	Ekainak 17	Irailaren 13tik 15era
<b>Mintegia: Euskal lurrealdeak kohesioa eta identitateak</b>	<b>Mintegia: Euskal lurrealdeak: esparru fisikoa eta lurrealde-garapena</b>	<b>Foro soziala: Lurrealdearen kontzeptualizazioa, diagnostiko partekatua hobetzeko</b>	<b>EHUren udako ikastaroa: Kohesioa eta elkartasuna eraikitzen: euskal lurrealdeak eta lurrealdetasuna XXI. mendean</b>

# 5

## Garapen sozio-ekonomikoa: euskal gizartea eta enpresa



### Zuzendari Zientifikoak

Guillermo Dorronsoro  
eta Ángel Toña, hurrenez hurren

### Proiektuaren Arduraduna

Arrate Arin Tapia

### Batzorde Eragilea

Izaskun Abril  
Xabier Alkorta  
Joseba Amondarain  
Marijose Aranguren  
Tomás Arrieta  
Iker Atxa

José Félix Basozábal  
Guillermo Dorronsoro  
Iñaki Dorronsoro  
Imanol Esnaola  
Helena Franco  
Izaskun Goñi  
Jose Ramón Guridi  
Iñaki Ibarra  
Jean-Michel Larrasquet  
Jose Luis Larrea  
Sergio Murillo  
Juan Manuel Sinde  
Iñigo Ruiz de Apodaca  
Iñaki Zabala

### Testuingurua

*Garapen sozio-ekonomikoa* proiektua: Gaur egun funtsezkoak diren galdera batzuei erantzun nahi die *Euskal gizartea eta enpresa* proiektuak:

- Zer da, gure ustez, «garapen sozio-ekonomikoa»?
- Zer eredu sozio-ekonomiko ari dira sortzen? Zer gaitasun dugu paradigma berri horietarantz jotzeko?
- Zer balio eta ezaugarri bereizgarri dituzte gure enpresek?
- Nolakoak dira (eta izan behar dute) enpresen arteko lankidetzak, eta enpresen eta instituzioen artekoak?
- Nola gaude kokatuta Europan eta ingurune globalean? Zer apustu egin behar ditugu?

## Aurkezpena

Proiektuak oinarrizko ezaugarri jakin batzuk ditu, Eusko Ikaskuntzaren ezaugarri bereizgarrietan oinarrituta:

- Nazioarteko joeren eta aldaketen azterketa.
- Euskal Herriari erreparatzea, lurraldetako buruzko ikuspegi zabaletik.
- Ikuspegi sistemikoa.
- Diziiplina anitzeko lana.
- Arreta berezia berrikuntzari.
- Historiaren eta orainaren azterketa, hausnartu eta etorkizunari buruzko proposamenak egiteko asmoz.
- Ezagutza berria sortzea baino gehiago da gaur egun dakiguna aztertu eta sozializatzea, eta gizartean eragitea.

- Azterketa teorikoa eta kasu errealeen azterketa uztartzea (teoria eta praxia).

- Proposamenak eta gomendioak.
- Erreferentziako institutuen, elkarteen eta mugimenduen partaidetza sustatzea, baita pertsonena ere.

## Helburua

Gailentzen ari diren eredu sozioekonomikoen eta enpresereduenguruaren hausnartzea, gure etorkizuneko erronka handiegi buruzko azterlanak eta proposamenak egitea, eta iritziak eta hausnarketak gizartearekin partekatzea.

## 2017ko jarduerak

Bilbo	Donostia	Hernani	Gesalta-Añana
Martxoak 9	Apirlak 6	Maiatzak 17	Irailak 21
<b>Lankidetza-ekonomiari buruzko mintegia</b>	<b>Lehiakortasunaren gakoei buruzko hausnarketa</b>	<b>Elkar-lankidetzari buruzko mintegia: lehiakortasunaren eta elkartasunaren artean</b>	<b>Arabako lurralte-orekarantz</b>



# BESTE PROIEKTU ETA EKIMEN BATZUK

---

## Trebreak

Eskolaz kanpoko eremuek euskararen sozializazio aktiboan duten eragina aztertzen du *TrebeAk!eus* proiektuak.

Bi helburu nagusi ditu:

- Esparru teoriko (berr)egokitua sortzea, eskolaz kanpoko eremuetan euskararen erabilera soziala suspertzeko eta espazio horietan euskaraz era aktiboan sozializatzeko trebezia indartzeko.
- Esku hartzeko programa-eredua diseinatzea, helburu horri berorri begira.

Eusko Ikaskuntzako, Euskarabideko, NUPeko, EHuko eta NUETSeko (Nafarroako Udaletako Euskara Zerbitzuen Sareko) kideek osatzen dute TrebeAk!eus lantaldea. Udalerrri pilotuetan, teknikariek eta taldeko ordezkariek ere hartuko dute parte, ikertzaileen laguntzarekin.

## Guggenheim Bilbao museoa

2017ko azaroaz geroztik, Artitz Dokumentazio Zentroa sortzeko eta hornitzeko lanean ari da Eusko Ikaskuntza. Zehazki, Guggenheim Bilbao museoaren lehen 20 urteetan antolatutako ehun erakusketetan sortu diren euskarazko arte modernoko eta garaikideko lanak biltzen dira bertan.

# Fondoak

## Euskal Kulturaren Dokumentazio Zentroa

2017. urtean zehar, Euskomedia Fundazioak

[www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org) webgunetik kudeatzen zituen Eusko Ikaskuntzaren edukiek osatzen joan da web berria. Hau horrela, Euskal Kulturaren Dokumenazio Zentroa deituriko atala sortu da. Eusko Ikaskuntzak XX. mendearren bukaeran hasitako eta ondorengo urteetan jarraitutako lanaren emaitza edukien plataforma bat da, eta, gaur egun, plataforma hori ezinbesteko tresna da munduko edozein bazterretatik euskal mundua ezagutu nahi dutenentzat.

Bestalde, [www.eusko-ikaskuntza.eus](http://www.eusko-ikaskuntza.eus) atarian, **Auñamendi Eusko Entziklopedia-Bernardo Estornés Lasa Funtsa** dago, euskal kulturari eta gizarteari buruzko entziklopediarik handiena, 120.000 artikulu eta 67.000 irudi baino gehiago dituela. Duen diseinu berrituak hobetu eta aberastu egiten ditu haren prestazioak, eta horrela errazago eta azkarrago aurki daiteke bilaturiko informazioa. "Nabarmenak" atal berriak sailkatu eta eskuragarri jartzen ditu eduki tematikoak, hala nola arteari, hezkuntzari, emakumeari edo euskal antropologiari buruzkoak. Eduki horien ardura duen idazketa- eta gainbegiratzetarako askotariko gaietako aditurek osatzen dute. Horiek bermatzen dituzte, hain zuzen ere, Auñamendi Entziklopediaren kalitatea eta zorroztasun zientifikoka.

**Multimedia Fondoak** izeneko espazio digitalak 80.000 irudi, 1.568 audio eta 266 bideo jasotzen ditu, edonork kontsultatzeko. Bilaketa aurreratuaren bidez, informazioa eta emaitzak iragazi eta mugatu egin ditzake erabiltzaileak, hainbat irizpideren arabera (leku edo dokumentu-mota, adibidez). Era berean, gai, egile, toponimo edo hitzen arabera aukera daitezke bilaketak, bestetik beste.

**Dokumentu Fondoak** izeneko atalak udal, erakunde eta funts pertsonaletan (esaterako, Jose Maria

Arizmendiarrietarenetik) datozen dokumentuak biltzen ditu, baita **Eusko Ikaskuntzaren Artxibo Historikotik** datozenak ere. Azken horrek, orain arte, 18.000 erregistro baino gehiago ditu, eta guztira 106.000 orrialde, 64 artxibategitan sailkatuta eta antolatuta. 2017an, Eusko Ikaskuntzaren sorrerako garaiari (1918-1936), gobernu-organoei eta administrazio- eta jarduera-idazkaritzei buruzko 1.000 dokumentu katalogatu eta 1.800 digitalizatu ziren. Dokumentu horiek balio ukaezina dute, ehun urteko erakunde honen ibilbidea ezagutu eta ulertzeko bidea ematen baitute.

Era berean, Eusko Ikaskuntzak bere webgunean txertatu duen **Euskal Kantutegiak** 5.000 partitura baino gehiago jasotzen ditu, Aita Donostia, Resurreccion Maria de Azkuek, Jose Maria Echeverriak, Juan Guimonek eta Juan Mari Lekuonak bildutakoak. Kantutegiko pieza bakoitzak fitxa bat dauka, titulua, data, letra eta abar adierazten dituena, baita dagokion partitura digitalizatua eta audio-fitxategia ere, MIDI formatuan. Kantutegietako obren artean nabigatzeko edo internautak nahi duen kantu jakin hori eskuratzeko bilaketa arrunta eta bilaketa aurreratua eskaizten dira, hainbat iragazki erabilita: biltzailea, kantutegia, lekuia...

Horrenbestez, Eusko Ikaskuntzak osaturiko Euskal Kulturaren Dokumentazio Zentroa euskal produkzioaren ezinbesteko erreferentzia da sareen sarean.

## Zarautz: argazki-artxiboaaren katalogazioa

Zarauzko udal-artxibategiko 228 argazki katalogatu dira, euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako deskribapenerenkin.

## Zumarraga: artxibategiko dokumentuen datu-basea

Eusko Ikaskuntzak eta Zumarragako Udalak sinatutako hitzarmenari esker, Zumarragako Udal Artxibategia osatu da, Gipuzkoako eskribauak (orduko notarioek) garaian-garaian udalerriaren inguruan idatzitako eskrituretako elementurik garrantzitsuenak biltzen dituen datu-basearen bidez.

## Ikerketa

### Antzuola: Mairuaren alardeari buruzko ikerketa historikoa

Antzuolako Mairuaren Alardea bertako herri-nortasuna nabarmenzeko erriturik garrantzitsuena da, baita balio historiko handiko jai-giroko ekitaldi kultural berezia ere. 2006an, Antzuolako Udalak eta Alardearen Kultur Elkarteak Mairuaren Alardeari buruzko hausnarketa-prozesuari heldu zioten Eusko Ikaskuntzaren laguntza zientifikoarekin. 2008an prozesua bukatutzat jo eta hurrengo urtean egin zen lehen Alarde egunerautua. Testuinguru horretan, batez ere artxiboko lanean oinarritutako ikerketa egin da.

### Bergara: herriaren historia laburra, 750. urteurrenean

Alfonso X. Jakitunak izendatu zuen hiribildu Bergara, 1268ko uztailaren 30ean Sevillan emandako pribilegioaren bidez. Horrek esan nahi du udalerriari hiribildu-izaera aitortu ziotenetik 750 urte beteko direla 2018. urtean.



Bergarako Udalak udalerriaren historia laburrari buruzko txostena eskatu dio Eusko Ikaskuntzari, mendeurrenenaren egitaraua diseinatzeko dokumentu-oinarritzat erabiltzeko.

### Portugalete: hilerraren arte-azterketa. Portugaleteko altxorren bilduma

Eusko Ikaskuntzak eta Portugaleteko Udalak sinatutako lankidetza-hitzarmenaren ondorioz egin diren ikerketa-lanak biltzen ditu Portugaleteko altxorren bildumak. 2017an, «Portugaleteko udal-hilerra: ikuspegi historiko-artistikoa» izeneko ikerlana argitaratu da.

### Urduliz: Frankismoari buruzko ikerketa historikoa

Eusko Ikaskuntzak eta Urdulizko Udalak sinatutako hitzarmenaren esparruan, 1930eko hamarkadari buruzko ikerketa egin da; Espainiako II. Errepublikaren eta Gerra Zibilaren garaiei buruzkoa, alegia.

# Kultur ondarea

## Eusko Ikaskuntzaren agerraldia Eusko Legebiltzarrean

Eusko Jaurlaritzak indarrean duen Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea, lege-proiektu honen bidez eguneratu eta egokitu nahi du. Legeari ekarpenak egiteko Lege Biltzarreko Kultura Batzordeak Eusko Ikaskuntzaren agerraldia eskatu zuen. Azaroaren 13an, Arantza Cuesta, Eusko Ikaskuntzaren izenean, Eusko Legebiltzarrean izan zen Euskal Kultura Ondarearen Lege Proiektuari ekarpenak egiteko.

Arantza Cuestak, Eusko Ikaskuntzak bere ibilbide osoan zehar artearen, ondare artistikoaren eta arkitektonikoaren gainean egin dituen hausnarketan eta ekimenen berri eman zuen. Ondoren, iritzia eman zuen testu arauemaile bakar batean ere jorratzen ez den arazo bati buruz: kultura-ondare digitalaren babeseta eta zaintza. Legearen testuari ekarpen zehatzak egin zizkion, gehien-gehienak kultura-ondare inmaterialari buruzkoak.

## Getxoko kultur eta itsas ondarea bistaratzetan

Duela sei urtetik hona Algortako Portu Zaharreko Ondarea eta Kultura Interpretatzeko Plana jorratzen ari dira, Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. 2017an zehar hainbat ekimen gauzatu dira:

- Portuko etxeetan plaka oikonimikoak ezartzeko bigarren fasea egin da.
- Hiru panel turistiko berri egin dira, ingurune horretako ondare-diskurtsoa eta -ibilbidea osatu eta aberasteko.
- Portu Zaharreko auzokide Miren Larrearen argazki-funtsaren zati bat digitalizatu eta katalogatu da, eskuragarri Getxoko Udalaren webgunetik.
- Lemanen (pilotu praktikoen) inguruko panela egiteko lanak hasi dira.

## OndareBideak

OndareBideak (euskar kulturaren museo birtuala) Eusko Ikaskuntzak, Elhuyar Fundazioak eta EHUn IKA ikerketa-taldeak jorratutako proiektua da, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren esparruan. OndareBideak proiektuaren bidez, erreferentziako 43 erakunderen —Euskomedia fundazioa, Soinunea, Eresbil, Itsas Museoa, Euskadiko Filmategia eta Antso Jakituna fundazioa, besteak beste — 400.000 dokumentu baino gehiago jarri dira sarean.

Hala, [www.ondarebideak.eu](http://www.ondarebideak.eu) webgunean eskura daiteke euskar kulturari lotutako edukiei buruzko informazio guztia, erraz eta lehen begi-kolpean, bilatzaile eleanitzuna eta iragazkiak erabiliz. Lau motatako edukiak biltzen ditu: testuak, argazkiak, audioak eta bideoak.

## Bermeoko altxorrak aurkitzen

Eusko Ikaskuntzak eta Bermeoko Udalak, Bermeoko geografia, bizitza soziala eta ezaugarri erakargarriak erakusteko bideo bat egin dute. Minutu eta erdian baino luzexeago, herriko txokorik adierazgarrienak eta ederrenak erakutsi eta Bermeoko eremu publikoetan dauden arte-lanen irudiak ageri dira.

## Industrializazioa eta euskal industria-ondarea

Euskal industria-ondareari buruz dagoen informazioaren diagnostikoa egitera bideratutako ikerketa-proiektua da. Horretarako, industria-arkitekturari eta -ondareari lotutako informazio-iturrien azterketa eta diagnostikoa egingo da, nola industria-jardunaren adibidetzat balio duten industria-elementuak hala industria-jarduera zehatz baten adibide koherentea eta osoa diren industria-multzoak kontuan hartuta.

## Berriozar: udal artxibategia antolatzeko kontsultoreta

Berriozarreko Udalak eskatuta, bertako udal-artxibategia antolatzeko aholkularitza-txostenetan egin dugu.

## Jardunaldiak

### Plentziako X. Jardunaldiak (Plentzia, 2017-07-11/13)

Plentziako historia-jardunaldien hamargarren edizioa izan da 2017koan: «Plentziako artea, bideak eta errituak». Aipatutako urteurrena dela eta, Plentziako eta Uribe Kostako iraganaren alderdi guztiak ikertzeko eta zabaltzeko lanean azken hamarkadan egindako ibilbidea eta jardunaldietako parte-hartzale guztiak ekarri dituzte gogora.

### Bilboko XXI. Sinposioa (Bilbo, 2017-11-29)

Eusko Ikaskuntzak eta Bilboko Udalak antolatu ohi duten Bilbori buruzko Sinposioaren hogeita batgarren edizioak 1917ko abuztuko greba orokor handiaren mendeurrena ekarri zuen gogora. Orobata, duela mende bateko euskal autogobernuaren aldarrakapenaz eta 1923ko kolpe militarraren aurreko urteetan Bilboko lehen alkate demokratikoek (Mario Aranak, Gabino Orbek eta Rufino Laisecak) gauzatutako ekimenez ere hitz egin zuten.

## Hitzaldiak

### ‘Cruce de caminos’ («Bidegurutzea», Arripodas, 2017-02-18)

Eusko Ikaskuntzak eta Urraulbeitiko Udalak sinatutako lankidetza-hitzarmenaren esparruan, Ana Zabalzak Iruberri-Aoitzen ibilbide historikoari buruzko hitzaldia eman zuen otsailaren 18an.

### Erakundeen arteko berrikuntza, mugaz gaindi (Donostia, 2017-03-22)

«Innobasqueko asteartearen» beste edizio bat egin zen martxoaren 21ean Donostian, Eusko Ikaskuntzak eta Innobasquek (Berrikuntzaren Euskal Agentziak) antolatuta, Koldo Mitxelena Kulturunearen laguntzarekin. Ekitaldian, erakundeen arteko lankidetzaren berrikuntzaz aritu ziren, Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen esparruan.

Instituzioak lankidetza sustatzeko eta lurraldeen arteko zubi-lana egiteko duen konpromisoaz hitz egin zuen Iñaki Dorronsoro lehendakariak, eta gogoratu zuen Eusko Ikaskuntza dela Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Ipar Euskal Herrian presentzia ofiziala duen diziplina anitzeko erakunde zientifiko bakarra.

### Solasaldi-jardunaldia: Manuel de Irujo

(Bilbo, 2017-05-31, 2017-07-19, 2017-10-25)

«Juan Manuel de Irujo Ollo eta bere ikuskera XX. mendeko Euskal Herriari buruz» izeneko solasaldiak egin dira urtean zehar Bilboko bulegoan. Solasaldi horien bidez, etorkizunari buruzko hausnarketa suspertu nahi izan da, Manuel de Irujoren esperientzia historikoan oinarrituta. Manuel de Irujoren ibilbidea aztertuz eta ulertuz, gure egungo garaiaaren nondik norakoez hobeto jabetuko gara.

### Biarritzeko hitzaldiak

(Biarritz, 2017-06-02, 2017-06-15)

Ekainean, Eusko Ikaskuntzak bi hitzaldi antolatu zituen Biarritzeko Mediatekan:

- Ekainaren 2an, Eric Dicharry: Beñat Iglesias López: un artiste d'Irun au USA
- Ekainaren 15ean, Matiena Duhalde: Le «kostatar» ou le parler basque du Labourd côtier



### Salvador Ginerren hitzaldia

(Donostia, 2017-06-09)

Eusko Ikaskuntzaren urteko Batzar Nagusiaren amaieran, Salvador Giner soziologoak «Construir Europa: el lugar de las naciones sin Estado» («Europa eraikitzen: estaturik gabeko nazioen lekua») izeneko hitzaldia eman zuen. Bartzelonako eta Pompeu Fabra unibertsitateetako katedraduna «nazio» hitzaren esanahiaz eta gaur egun nazionalismoak Europan eta Europatik kanpo izaten ari diren gorakadaz mintzatu zen.

# SARIAK

---

Urtero, zientzien, humanitateen,  
arteen, euskal kultura eta hizkuntzaren  
esparruetan nabarmendutako ibilbideak  
saritzen ditu Eusko Ikaskuntzak.





## Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Saria 2017

Montxo Armendariz zinemagile nafarrak eskuratu zuen Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Saria. Horrela, saria emateko ekitaldia Iruñean egin zen eta Nafarroako Foru Gobernuko lehendakari Uxue Barkos eta Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu izan ziren bertan.



## Manuel Lekuona Saria

Martxoaren 25ean, 2016ko Manuel Lekuona Saria eman zitzaion Jean-Louis Davant idazle eta historialari Ürrüstoi-Larrabilen egindako ekitaldian.

Bestalde, Fermin Leizaola izan da 2017ko sariduna, etnografiaren alorrean egindako ibilbide luze eta emankorren ondorioz.



## ENE Saria 2017

Nevadako Unibertsitateko William A. Douglass Center for Basque Studies zentroak ENE Saria (Euskararen Nazioarteko Egunaren Saria) jaso zuen, hamargarren edizioan. Zentroak berrogeita hamar urtetik hona egindako lana goretsi zuen epaimahaia. Xabier Irujok, zentroko lehendakariak, jaso zuen saria.



## El-Baiona Hiria Saria 2017

Jean-Michel Bedaxagar kantariak jaso zuen 2017 Eusko Ikaskuntza-Ville de Baiona Ohorezko Saria. Euskal Kulturaren Saria Uxoa Anduaga soziologoarentzat izan zen, euskal politikako umoreari buruzko tesiatik. Iku-sentzunezko sorkuntzaren Saria, berriz, Elsa Oliar-Jinésentzat izan zen, *Basahaideak* dokumentalagatik.

# ZABALKUNDEA



**Eduki kultural eta zientifikoak ekoiztea  
eta zabaltzea izan da, betidanik,  
Eusko Ikaskuntzaren lanetako  
bat. Argitalpenen (digitalen nahiz  
paperezkoen) bidez, Interneteko  
plataformak erabiliz eta hedabideetan  
agertuz, pentsaera kritikoa sortzeko  
funtsezko lana egiten du Eusko  
Ikaskuntzak.**





## Urteko Galdera, Solasaldiak, Euskonews

2017ko Urteko galdera «Zer da gaur egun gizakia izatea?» izan zen, eta era guztietako diziplinetako 33 adituk erantzun zioten.

Gainera, adituen arteko hamaika solasaldi grabatu eta Euskonews aldizkari digitalean bistaratu ziren. Izan ere, aldizkari digitalak 70 artikulu inguru argitaratu ditu 2017an.



## RIEV - Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria

Urtero bezala (1907az geroztik), *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariak* goi-mailako dibulgazioko edukiak kaleratu ditu 2017an ere. 62,1 eta 62,2 aleek hiru atal dituzte: «Tribuna», artikulu sakonak biltzen dituena; argitalpenen «Reseña» edo aipamena eta euskal kultura- eta zientzia-esparruari buruzko «Noticia».



## Aurkezpena: Aita Donostiaren lan osoak: «Notas de Folklore»

Aita Donostiaaren (1886-1956) lan osoen hamargarren eta azken liburukia, «Notas de Folklore» izenekoa, martxoaren 28an aurkeztu zen. Aldi berean, Eusko Ikaskuntzak sarean jarri ditu musikagile, musikologo eta folkloristaren lan guztiak.



## Koadernoak: «Mediatika» eta «Vasconia»

*Mediatikaren* 15. alea EHUKO Gureiker ikerketa-taldeak eta Eusko Ikaskuntzak elkarlanean argitaratu da. *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía* zenbakaren 41. alea ere kaleratu da. Ale honek EHUKO Biography & Parliament ikerketa-taldearen laguntza jaso du.



## Fuentes documentales Medievales del País Vasco

